

**2008KO ABENDUREN 16AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO  
OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea

**ARETOA:** Batzar Aretoa

**EGUNA:**Hamaseia

**HILABETEA:** Abendua

**URTEA:** Bi mila eta zortzi

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko bederatzia

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Sei (6)

**MAHAIBURUA:** Patxi Plazaola Muguruza

**BILDUAK:** Aitor Aldasoro Iturbe

Fernando Boada González

Julio Herreros Serna

**ETORRI GABEAK:** Jon Kortaberria Lasa

Begoña Lasa Royuela

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA.** 2008ko azaroko 18ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute, berarekiko zeresanik ez dagoelako.

**2.- OBRAK KONTRATATZEA:**

Zumadiko poligonoan kamioientzat aparkalekua egiteko deialdia hutsik uztea eta berriro ere obrak lizitatzea.

Hirigintza batzordeak proposatuta aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“**Lehenik.** Zumadiko poligonoan kamioientzat aparkalekua egiteko obrak kontratatzeke egindako lizitazioa eta hain zuzen ere, deialdia 2008ko urriaren 31ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa, hutsik uztea proiektuko partida batzuk ondo ez zeudelako.

**Bigarren.** Zumadiko poligonoan kamioientzat aparkalekua egiteko proiektua zuzentzea eta obrak kontratatzea, lizitazio prezioa lehen egindakoaren berdina izanik .

**Hirugarren.-**, Aipatutako obrak lehiaketa bidez kontratatzeko deialdi publikoa egitea.

1.- Xedea: Zumadi poligonoan kamioientzat aparkalekua egiteko obrak kontratatzea.

2.- Kontratatzeko era eta prozedura: prozedura irekia.

3.- Lizitazio prezioa: 405.200,06 €, BEZ barne.

4.- Enpresa sailkapena: A taldea, 2. Azpitaldea, a maila  
G taldea, 4. Azpitaldea, c maila  
I taldea, 1. Azpitaldea, amaila

5.- Espedientea: baldintza plegu administratibo eta teknikoak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Beasaingo Udalaren Harrera Bulegoan.

6.- Behin betiko bermea: adjudikazio aurrekontuaren %5a.

7.- Egikaritze epea: 3 hilabete.

8.- Proposamen eredu: Baldintza Administratiboen pleguaren eranskinean azaltzen dena.

9.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 26 egunetan.

10.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: Plikak irekitzeko ekintza Beasaingo Udaletxean egingo da, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo zazpigarren lanegunetan 13:00etan. Larunbata tokatuko balitz, hurrengo lanegunera pasatuko da.

11.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatuzaileek Baldintza Administratiboen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

### **3.- OBRAK ESLEITZEA:**

Oriamendi eta Nekolalde kaleen arteko igogailuak jartzeko obrak esleitzea.

Aho batez ondorengo erabakia hartu da:

## “AURREKARIAK

I.- Gobernu Batzordeak 2008ko urriaren 14ko datarekin egindako ohiko bileran, erabakia zuen:

1.- Nekolalde kalera Oriamendi kaletik joateko dauden eskaileretan igogailuak jartzeko prozedura irekiaren bitartez obrak kontratatzeko Toledo Taldeak egindako proiektua eta horretarako behar den baldintza plegua onartzea..

2.- Aipatutako obrak lehiaketa bidez kontratatzeko deialdi publikoa egitea, lizitazio prezioa, 371.639,54 €koa BEZ barne izanik eta egikaritze-epaia 6 hilabetekoa.

II.- Deialdia 2008ko urriaren 28an argitaratu zen eta aurkeztutako bi plikak irekitzeko ekintza berriz, 2008ko abenduaren 2an izan zen.

Aurkeztutako eskaintza ekonomiko eta dokumentazioa aztertu ondoren, eskaintzak puntuatu egin dira, baldintza plegu administratiboko 20. artikuluan aurreikusitako esleipen-irizpideen arabera.

1.Prezioa/Precio..... .....	0 - 70 p. 0 - 10 p.
2. Obraren azterketa/Estudio de la obra. Lanen Egitaraua/Programa de trabajos.	0 - 10 p.
3. Epeak: partzialak eta guztira/Plazos parciales y total.....	0 - 5 p.
4.Obrari atxikitutako pertsonala eta asistentzia teknikoak/Personal asignado a la obra y asistencias técnicas.....	0 - 5 p.
5. Makinaria eta obrei atxikitutako baliabide laguntzaileak/Maquinaria y medios auxiliares adscritos a las obras.....	

Horren ondorioz, lortutako emaitza ondorengoa izan da:

ESTUDIO DE VALORACION OFERTAS SUPRESION BARRERAS ARQUITECTONICAS. ASCENSORES ORIAMENDI-NEKOLALDE														
LICITACION		OFERTANTES						PUNTUACION						
Importe	Plazo	CONTRATISTA	Propuesta Económica	Plazo	Propuesta Media	Baja Media	Limites Baja	Baja Oferta	Precio	Estudio Obra	Plazos	Personal Asignado	Maquinaria	TOTAL
371.639,54	6,00	ARKAITZA - MUGUERZA	309.556,07	3	346.480,07	6,77	0 - 16,77	16,71	70,00	7,00	8,33	5	5	95,33
		CNES URBYCOLAN	321.352,60	3,5				13,53	62,06	10,00	8,333	5	5	90,40
		EGUZKI EMPRESA	329.382,32	4,5				11,37	56,66		5			61,66
		CNES PEDRO IPARRAGUIE	360.983,36	5				2,87	35,41		3,333			38,74
		CNES ALZOLA SA	363.463,46	4,5				2,20	33,74		5			38,74
		CNES IRUÑA - CODOSA	369.637,13	3				0,54	29,58		10			39,58
		CAMPEZO - THYSENKRUP	370.985,52	4,5				0,18	28,68		5			33,68
		MEDIA PROPUESTAS	346.480,07	4,00										

Esleipen-irizpide desberdinen azterketa, baloratu diren eskaintzeekiko ondorengoa da:

### OBRAREN AZTERKETA (10 puntu)

Bi lizitatzailleek orokorrean azterketa zuzena aurkezten dute, baina URBYCOLAN enpresak aurkezten duena zehatzagoa da. Beraz, ondorengo puntuazioa ematen da:

- ARKAITZA + MUGUERZA: 7
- URBYCOLAN: 10

### EPEAK PARTZIALAK ETA EPEA GUZTIRA (10 puntu)

Atal honetan eskaintzak honela puntuatu dira: obrak egiteko denbora gutxiena behar duenari gehiengo puntuazioa eman zaio, baina ARKAITZA + MUGUERZA kasuan kontsideratu da epea justukoa dela eta GANT diagrama batean adierazten ez denez, URBYCOLANI eman zaion puntu berdina ematen zaizkio.

### ATXIKITUTAKO PERTSONALA ETA ASISTENTZIA TEKNIKOAK (5 puntu)

Bi lizitatzailleek obrak egiteko nahiko pertsonala aurkezten dute, Horren ondorioz, biei puntuazio berdina eman zaie.

### MAKINARIA ETA OBRARI ATXIKITUTAKO BALIABIDE LAGUNTZAILEAK (5 puntu)

Bi enpresak eskaintza zuzena aurkezten dute, makinaria eta obrari atxikitutako baliabide laguntzailei buruz. Beraz, biei gehienezko 5 puntu ematen zaizkie.

Horren ondorioz, Kontratazio-mahiak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

**Lehenik.** Nekolalde kalera Oriamendi kaletik joateko dauden eskaileretan igogailuak jartzeko, **ARKAITZA + MUGUERZA** enpresaren alde behin-behineko esleipena egitea, **309.556,07 €ko prezioan, BEZ barne.** Egikaritze epea, berak egindako eskaintzaren arabera, 3 hilabetekoa izango da.

**Bigarren.** Adjudikaziodunak **15.477,80 €ko** behin betiko fidantza aurkezten duenean, behin betiko esleipena egingo da. Horretarako eta kontratua sinatzeko Alkateari baimena ematen zaio. Behin betiko fidantza, behin-behineko esleipena kontratugilearen profilean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita eta hamabost eguneko epean aurkeztuko da.”

#### **4.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA.** Kontratua luzatzea.

2008ko abenduaren 15ean gizarte ongizate batzordeak proposatuta, aho batez onartu da, etxez etxeko laguntza zerbitzua emateko, GOXARA, S.L.rekin sinatuta dagoen kontratua beste urte baterako luzatzea, KPI aplikatuz.

**5.- UDAL BIZTANLE ERROLDA.** Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako eskaera.

Ezagutzera eman da Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak egindako eskaera herritarren udal errolda modu informatikoan kontsultatzeko baimena eskatuz, honako kudeaketak egiteko:

- a) Estatuaren diru prestazioak (Kotizatu Gabekoen Pentsioa, Ezgaituak Gizarteratzeko Legea).
- b) Eusko Jaurlaritzaren diru prestazioak (oinarrizko errenta, gizarte ongizateko funtsa)
- c) Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru prestazioak (Mendekotasun Legearen diru prestazioak, laguntza teknikoak).
- d) Mendekotasuna eta ezgaitasuna baloratzeko eskaerak
- e) Pertsona adinduentzako egoitza plazaren eta eguneko zentroko plazaren eskaerak.
- f) Ezgaituentzako egoitza plazaren eta eguneko zentroko plazaren eskaerak.

Gizarte ongizate batzordeak 2008ko azaroaren 21ean egindako bileran proposatu du baimena ematea, udaleko gizarte ongizateko saileko langileriaren lana errazten duelako, izan ere, gizarte zerbitzu eta prestazio ezberdinen

eskaera tramitatzekoan erabilitako extranet aplikazioan erroldaren datuak automatikoki irauli egiten bait dira.

Horren ondorioz, onartu egin da Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak egindako eskaera onartzea eta hain zuzen ere, herritarren udal errolda modu informatikoan kontsultatzeko baimena ematea, aipatutako kudeaketak egiteko.

## **6.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko gairik ezean bilera hamarrak eta hogeita hamar minutuetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.